



JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA AIRE ZABALEAN

1. Egin al daiteke jarduera fisikoa eta kirola taldeka (korrika egitea, bizikletaz ibiltzea)?

Bai, federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa, bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe.

2. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea jarduera fisikorako eta kirolerako?

Maskara aire zabaleko espazioetan erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada. Kirol-jardueraren bat egiten denean, maskara ez da nahitaezkoa izango espazio naturaletan eta oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, ezta intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan ere.

3. Baimenduta al dago ehiza-jarduera modalitate guztietan, bai eta ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza ere, modalitate guztietan?

Ehiza-jarduera mota guztiak eta ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza mota guztiak baimentzen dira, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantentzen bada.

4. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea ehiza-jarduera guztietan, bai eta ibaiko, itsasoko, kiroleko eta aisialdiko arrantzako modalitate guztietan?

Maskara aire zabaleko espazioetan erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada. Kirol-jardueraren bat egiten denean, maskara ez da nahitaezkoa izango espazio naturaletan eta oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan.

5. Zein da baimendutako edukiera kirol-eremuetan, patinaje-pistetan (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko espazioetan?

Esparruaren azalerako 4 metro koadroko gehieneko edukieran pertsona 1.

6. Nori dagokio erabilera publikoko espazio horiek antolatzea, bai eta garbitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere?

Udalei eta, hala badagokio, administrazio eskudunei dagokie espazioa antolatzea, baita garbitasun eta higiene-baldintzak bermatzea ere.

Aire zabaleko espazio publikoa gehiago erabil dadin sustatzea gomendatzen da, herritarrentzat espazio gehiago egon daitezen.

Era berean, Udalei dagokie aire zabaleko espazio publikoa gehiago erabil dadin sustatzea, herritarrentzat espazio gehiago egon daitezen, betiere ezarritakoa errespetatuz.

KIROL-INSTALAZIOAK (Igerilekuak barne)

7. Zer kirol-jarduera mota dago baimenduta kirol-instalazioetan?

Kirol-instalazio itxietan, kirola bakarka edo taldeka egin ahal izango da, gehienez 10 laguneko taldeetan eta beti maskara jarrita. Taldeka ematen diren jardueretan, gehienez 10 lagunek parte hartu ahal izango dute talde bakoitzean, instalazioaren berezko protokoloak errespetatuz.

Aire zabaleko kirol-instalazioetan, kirol-jarduera taldekatze-mugarik gabe, egin ahal izango da

8. Baimenduta al dago kirol kantzak alokatzea?

Bai, kirol-instalazio itxiak gehienez 10 lagunentzat alokatu daitezke, kontakturik gabe eta betiere instalazioaren prebentzio- eta edukiera-arauak errespetatzen badira.

Era berean, baimenduta dago aire zabaleko kirol-instalazioak alokatzea, taldekatze-mugarik gabe.

9. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea kirol instalazioetan?

Aire zabaleko instalazioetan, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxienez 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada. Igerilekuetan joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabili behar da. Maskara erabiltzea ez da beharrezkoa izango: igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean, lehiaketak prestatzeko entrenamenduetan, lehiaketan bertan eta intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan aire zabalean.

Kirol instalazio itxietan, maskara nahitaez erabili behar da. Ez da beharrezkoa izango igerileku eta ur-jolasguneetan maskara erabiltzea, ez bainatzeko garaian, ez dutxatzeko unean. Halaber, ez da eskatuko lehiaketak prestatzeko entrenamenduetan edo lehiaketan bertan.

10. Zein da kirol-instalazioetan baimendutako gehieneko edukiera?

Baimendutako gehieneko edukieraren %60 izango da.

11. Zein dira igerilekuetan aplikatu beharreko neurriak?

Igerilekuetan, barne-espazioen eta edalontzien gehieneko edukiera %60ekoa izango da.

Kanpoko egonleku/solarium eremuetan, gehieneko edukiera baimendutako edukieraren % 60rainokoa izan daiteke. Edukiera jendaurrean jarri behar da. Benetako edukiera kontrolatzeko momentu oro edukiera jakiteko sistemak ezarriko dira.

Pertsonarteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izango da, gutxienez, elkarrekin bizi ez diren erabiltzaileen artean, instalazioko espazio guztietan (harrera, ur eremua, aldagelak), antola daitezkeen jardueretan eta elementu komunak erabiltzeko moduan, hala nola armairuak, bankuak eta komunak. Dutxen kasuan, pertsonen arteko distantzia 2 metrokoa izango da gutxienez.

Instalazioaren barruko sarbideetan eta ibilbideetan segurtasun-distantzia errazago bete ahal izateko, ahal den neurrian, zirkulazioaren noranzkoa markatuko da, leku bakoitzeko sarrera-puntuak eta irteera-puntuak bereizten saiatuz eta 1,5 metroko tartek markatuz.

**12. Aldagelak eta dutxa-guneak erabil daitezke?**

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren ehuneko 50eko okupazioarekin. Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira edo pertsonen arteko distantzia bi metrokoa bada. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

13. Kirol-instalazio itxietan ikastaroak edo jarduerak taldeka egin daitezke?

Gimnasioetan, kirol-klubetan, igerilekuetan eta kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak egin ahal izango dira, beti ere 10 pertsonako taldeetan, eta edukieraren %60eko muga errespetatuz.

14. Klase batean talde bat baino gehiago egon daitezke aldi berean?

Bai, kirol instalazio itxietan, talde bat baino gehiago egon daitezke aldi berean maskara erabiltzen bada, taldeen arteko distantzia errespetatzen bada, taldeak ondo mugatuta badaude eta taldeen arteko harremanik ez badago..

15. Taldeko arduradunak izan al dezake harremanik kirolariarekin?

Ez, kontaktua ez dago baimenduta inoiz.

16. Pertsona bat izan daiteke talde bat baino gehiagoren arduraduna aldi berean?

Bai, pertsona bat talde baten baino gehiagoren arduraduna izan daiteke.

17. Talde adina arduradun egon al daitezke?

Bai, talde bakoitzean arduradun bat egon daiteke, eta ezin da haien artean kontakturik izan.

ENTRENAMENDU ETA LEHIAKETA FEDERATUAK ETA PROFESIONALAK**18. Entrenatu dezake kirolari federatu batek?**

Bai, entrenatu dezake.

19. Lehiatu dezake kirolari federatu batek?

Bai, bizi den udalerrria ez den beste udalerrri batera egutegi ofizialeko probak egiten diren lekuetara joan daiteke. Federazio bakoitzari, bere eremuan, eta, kasua bada, lehiaketa bakoitzaren ardura duten erakundeei dagokie prebentzio-neurriak eta -protokoloak zorrotz betetzen direla zaintzea.

20. Antolatu al daitezke federazioen estaldurarik gabeko lehiaketak?

Bai, onartuko dira federazioen egituratik kanpo antolatzen diren kirol-lehiaketak, antolatzaileek baimena eskatu beharko diete erakunde eskudunei, lehiaketa garatzeko protokolo bat erantsita. Protokolo horrek, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren jarraibideak betez, higie- eta urruntze-neurri guztien jarraipena eta osasun-agintariek ezarritako beste edozein arau bermatuko ditu.

21. Lehiaketa eta entrenamenduetan gaudenean, aldagelak erabil daitezke?

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren ehuneko 50eko okupazioarekin. Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira edo pertsonen arteko distantzia bi metrokoa bada. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

ESKOLA KIROLA**22. Zer da eskola-kirola?**

Lehendakariaren urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan ezarritakoaren ondorioetarako, eskola-kiroltzat hartzen da federatu gabeko kirol-jarduera antolatu oro, baldin eta 6 eta 16 urte bitarteko ikasleek eskola-orduetatik kanpo egiten badute derrigorrezko eskolaldian, edozein dela ere jarduera antolatzen duen erakundea eta aldi berean eskola-kiroleko programetakoa den ala ez.

23. Zer jarduera egin dezakete eskola kirolean?

Eskola-kiroleko entrenamenduak eta lehiaketak egin ahal izango dira taldekatze-mugarik gabe.

24. Maskara erabili behar da eskola kirolean?

Aire zabaleko instalazioetan, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxienezko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada. Igerilekuetan joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabili beharko da. Maskara erabiltzea ez da beharrezkoa izango: igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean, lehiaketak prestatzeko entrenamenduetan, lehiaketan bertan eta intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan aire zabalean.

Kirol instalazio itxietan, maskara nahitaez erabili behar da. Ez da beharrezkoa izango igerileku eta ur-jolasguneetan maskara erabiltzea, ez bainatzeko garaian, ez dutxatzeko unean. Halaber, ez da eskatuko lehiaketak prestatzeko entrenamenduetan edo lehiaketan bertan.



25. Aldagelak eta dutxak erabil ditzakete eskola kirolean?

Ez, ezin dituzte aldagelak eta dutxak erabili, erabiltzaileek erabili behar dituzten igerilekuetako aldagelak izan ezik.

26. Eskola kiroleko jarduerak protokoloen bat izan behar dute?

Foru Aldundietako Eskola Kiroleko Programetan izena emanda dauden entitateek egiten dituzten jarduerak eta horiek baimentzen dituzten beste jarduerak, indarrean dauden arauak jarraikiz eguneratutako jarduketako protokoloa izan beharko dute.

Ikastetxeetan egiten diren jarduerak hauen protokoloak errespetatu beharko dituzte eta, halaber, hirugarrenen instalazioak erabiltzen direnean, horietarako ezarritako protokoloak errespetatu beharko dira.

LEHIAKETAK. KIROL-EKITALDI ETA IKUSKIZUNAK.

27. Zein da kirol-lehiaketa, -ekitaldi edo -ikuskitun bat publikoa bertaratzeko prozedura?

Arriskuak murrizteko plan-protokolo bat eduki beharko da.

Protokolo-plan hori erakunde eskudunei aurkeztuko zaie, lehiaketa garatzeko baimena eskatzeko.

28. Zein da eskumena duen erakundea lehiaketa garatzeko baimena eman behar duena?

Baimena ematea bidezkoa denean, erakunde eskuduna, egoera arruntean eskuduna dena izango da.

29. Joan al daiteke lehiaketa, ekitaldi edo kirol-ikuskitun bat ikustera?

Bai, baimentzen da kirol-ekitaldietara ehuneko 60eko edukiera gainditu gabe joatea, muga hauen arabera:

- 1.600 lagun baino gutxiagoko edukiera duten esparruetan gehienez ere 600 pertsona bildu ahal izango dira barrualdeetan eta 800 pertsona kanpoan.
- 1.600 eta 5.000 lagun arteko edukiera duten esparruetan, gehienez 800 pertsona egon daitezke barruan, eta 1.200 kanpoan.
- 5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan, ez da gehieneko edukieraren %30 gaindituko. Ahal den guztietan, 1.000 pertsona baino gutxiagoko eremu independenteak ezarriko dira, sarbide eta pasabide independenteetako guneekin. Muga horiek ez zaizkie aplikatuko, aldeztu aurretik eta indarrean dagoen aurreko araudiaren arabera, edukiera handiagoa kontratatuta duten ekitaldiei.
- Aire zabalean egiten diren ekitaldietan, hiri-inguruneetan nahiz ingurune naturalean izan, jendea jarduera horietara joan ahal izateko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideak errespetatu beharko dituzte antolatzaileek.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio protokoloak ezar ditzan, beste edukiera batzuk dituzten instalazioak erabili ahal izateko, osasun publikoko helburuetarako eta helburu sanitarioetarako proba pilotuak egiteko



30. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea kirol-lehiaketa, -ekitaldi edo -ikuskitzetara joaten den jendearentzat?

Kirol instalazio itxietan eta aire zabalean egiten diren probetan, maskara nahitaez erabili behar da.

31. Onartzen al da zutik egotea kirol-lehiaketa, -ekitaldi edo -ikuskitzetan batean?

Harmailak edo eserlekuak dituzten kirol-instalazioetan, jendea eserita egon beharko da, aurrez esleitutako eserlekua beharko da, segurtasun-distantzia eta edukiera-mugak errespetatu beharko dira.

Harmailarik edo eserlekurik ez duten instalazioetan eta publikoa zutik egon behar bada. Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia ziurtatu beharko da, bizikideen taldeak izan ezik.



Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 1a.

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA